

JAINKOA MAITASUNA DA

"DEUS CARITAS EST"

**BENEDIKTO XVI.a AITA SANTUAREN GUTUN-ENTZIKLIKA
APEZPIKUEI, APAIZEI ETA DIAKONOEI,
SAGARATURIKO GIZON-EMAKUMEEI
ETA FEDEDUN LAIKO GUZTIEI KRISTAU-MAITASUNAZ**

2005eko abenduak 25

(ITZULTZAILEA: LUIS BARALAZARRA TXERTUDI)

SARRERA

1. "Jainkoa maitasuna da, eta maitasunean dirauena Jainkoarekin bat eginik dago eta Jainkoa harekin" (1 Jn 4, 16). *Joanen Leben gutuneko* hitz hauek argi-argi adierazten dute kristau-fedearen muina: Jainkoaren kristau-irudia eta, beraz, gizakiaren eta honen bidearen irudia. Gainera, txatal honetan bertan eskaintzen digu Joanek, nolabait esateko, kristau-existentziaren adierazpen laburra: "Guk ezagutu dugu eta sinetsi Jainkoak digun maitasuna".